

BATZORDEAREN 1897/2000 ERREGELAMENDUA (EE),**2000ko irailaren 7koa.**

Horren bidez Kontseiluaren 577/98 erregelamendua betearazteko xedapenak ezarri dira. Kontseiluaren erregelamendu hori Erkidegoko biztanleria aktiboari buruzko laginketa bidezko inkesta bat antolatzeari buruzkoa da eta baita langabezia zer den definitzeko ere.

EUROPAKO ERKIDEGOETAKO BATZORDEAK,	ONDORENGO ERREGELAMENDUA ONARTU DU:
<p>Europako Erkidegoa Eratzeko Ituna ikusita,</p> <p>Kontseiluaren 577/98 erregelamendua, 1998ko martxoaren 9koa, hain zuzen ere Batasuneko biztanleria aktiboari buruzko laginketa bidezko inkesta bat antolatzeari buruzkoa, ikusita, bereziki 3. artikuluko 3. paragrafoa,</p> <p>eta ondorengoak kontuan izanda:</p> <p>(1) EE-ko 577/98 erregelamenduko 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaz bat, komenigarria da lan-egoerari buruzko aldagaiak eta lan-egoerari buruzko galderak idazteko printzipioak zeintzuk izango diren zehaztea.</p> <p>(2) Biztanleria aktiboari buruzko estatistikak nazioartean erkatu ahal izateko, erkidegoko estatuek eta Erkidegoko erakundeek enplegua eta langabezia neurtzeko orduan, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) emandako definizioen barruan jardun behar dute.</p> <p>(3) Batzordeak erkatzeko moduko adierazleak behar ditu enpleguaren inguruko jarraibideak betetzeko orduan zer nolako aurrerapausoak eman diren aztertu eta ebaluatzeko (2).</p> <p>(4) Hori dela eta, beharrezkoa da erkidegoko estatu guztientzat bera izango den langabeziaren definizio bat ematea eta biztanleria aktiboari buruzko galdera-sortak gehiago bateratzea.</p> <p>(5) Erregelamendu honetan aipatzen diren neurriak bat datoz Kontseiluaren 89/382/EEE Euratom Erabakiak sortutako estatistika-programarako lantaldearen irizpenarekin (3).</p>	<p><i>1. artikulua</i></p> <p>1. Langabezia zer den erregelamendu honen I. eranskinean ageri da.</p> <p>2. Lan-egoera zein den jakiteko egin beharreko galderak zein printzipioren arabera izango diren, erregelamendu honetako II. eranskinean dago jasota.</p> <p><i>2. artikulua</i></p> <p>1. Erkidegoko biztanleria aktiboa zein den jakiteko enpleguaren egoerari buruz egindako galderek erregelamendu honetako II. eranskinean aipatutako printzipioak beteko dituzte, eta langabezia zenbatekoa den neurtu ahal izango dute, baina I. eranskinean emandako definizioaren arabera ulertuta langabezia.</p> <p>2. Hala ere, lehenengo paragrafoa ez da derrigorrez ezarri beharrekoa izango, laginketa bidezko inkesta egokitze egin beharrekoak egiten ez diren artean. Kasu horretan, erkidegoko estatuek Eurostat erakundeari Erkidegoko biztanleria aktiboari buruzko inkesta bidaltzerakoan, garbi adierazi beharko dute lehen paragrafoko definizioarekiko eta printzipioekiko zer nolako aldeak dauden.</p> <p><i>3. artikulua</i></p> <p>Erregelamendu hau Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hogeit egunetara sartuko da indarrean.</p>

Erregelamendu honetako atal guztiak derrigorrez bete beharrekoak eta erkidegoko estatu guztietan zuzenean ezartzekoak izango dira.

Bruselan, 2000ko irailaren 7an.

Batzordeak
Pedro SOLBES MIRA
Batzordekidea.

(1) DO L 77, 1998-03-14koa, 3. or
(2) DO C 69, 1999-03-12koa, 2. or
(3) DO L 181, 1989-06-28koa, 47. or

I. ERANSKINA

Biztanleria aktiboari buruzko inkesta: langabeziaren definizioa

1. Lanaren Nazioarteko Erakundeak Laneko Estatistikoen Hamahirugarren eta Hamalauugarren Nazioarteko Konferentzietan onartutako arauekin bat, eta erkidegoko biztanleria aktiboaren inguruko laginketarako, 15 eta 74 urte arteko pertsonak izango dira langabeak, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:
 - a) Erreferentziako astean lanik gabe egotea, hau da, inoren kontura edo norbere kontura egindako lanik ez izatea (gutxienez ordubeteko);
 - b) Lan egiteko gertu egotea, hau da, inoren kontura edo norbere kontura lanean hasteko gertu egotea, erreferentziako astearen hurrengo bi asteetan;
 - c) Lan bila era aktiboan aritzea, hau da, inoren kontura edo norbere kontura lanean aritzeko neurri zehatzak hartuta izatea, erreferentziako astea amaitu aurreko lau asteetan zehar, edo lana aurkitzea eta gehienez ere hiru hilabete baino lehen lanean hastea.
1. puntuko c) hizkiaren arabera, hauek izango dira neurri zehatzak:
 - Enplegua lortzeko bulego publiko batekin harremanetan izatea, **lana lortzeko asmoz**, edozein izanik ere lehen pausoa eman duena (izen ematea berriztu egin bada, baina hori arrazoi administratibo hutsengatik gertatu bada, kasu horretan ez da pentsatuko modu aktiboan lan bila ari denik),
 - Bulego pribatu batekin harremanetan izatea (aldibaterako lanetarako bulegoa, kontratazioetan espezializatutako enpresa, e.a.) lana bilatzeko asmoz,
 - Enplegu-emailei lan egiteko gertu zaudela adieraztea,
 - Norberak dituen harremanen bitartez, sindikatuen bitartez e.a. saiatzea,
 - Egunkarietan iragarkiak jartzea edo egunkarietako iragarkiei erantzutea,
 - Enplegu-eskaintzak aztertzea,
 - Proba, lehiaketa edo elkarrizketetan parte hartzea, kontratatzeko prozeduraren batean,
 - Lur, tegi edo materialak bilatzen saiatzea,
 - Baimen, lizentzia edo finantza-baliabideak lortzeko egin beharrekoak egitea,
2. Hezkuntza eta prestakuntza enplegua lortzeko gaitasuna hobetzen duten bideak dira, baina ez dira enplegua bilatzeko aukeren artean sartzen. Ikasten edo prestakuntza-moduren bat jasotzen ari diren pertsonak ez dira langabetzat hartuko, ez badaude “lan egiteko gertu” edo “lan bila” deituriko egoeran, hain zuzen ere 1. puntuko b) eta c) hizkietako definizioen arabera.
3. Lanetik botatako pertsonak langabetzat hartuko dira enplegu-emaileak soldata adierazkor bat (%50aren berdina) ematen ez baldin badie eta “lanerako gertu” eta “lan bila” egoeran baldin badaude. Lanetik botatako pertsonak enplegu-emailearen ekimenez lan-utzialdian dauden langileen egoera berean egongo dira, baita baimen hori erakunde edo funts publikoek finantziatzen duten kasuan ere (Nazioarteko Estatistikoen hamaseigarren Nazioarteko Konferentzia). Kasu horretan, lanetik kanporatutakoak pertsona aktibotzat hartuko dira berriz ere lanean hasteko eperen bat jarrita baldin badago eta epe hori hurrengo hiru hilabeteak amaitu baino lehenagokoa baldin bada.
4. Lan sasoiatik kanpora, ez da pentsatuko sasoiako langileak lotura formalik duenik lan sasoiako lanarekin. Izan ere, sasoiako langileek ez dute inolako soldatarik jasotzen enplegu-emailearengandik, nahiz eta lanera itzuliko den bermea izan. Lan sasoiatik kanpora ez baldin badute lanik egiten, ez dira langabetzat hartuko, ez badaude “lan egiteko gertu” edo “lan bila” deituriko egoeran, hain zuzen ere 1. puntuko b) eta c) hizkietako definizioen arabera.

II. ERANSKINA

Biztanleria aktiboari buruzko inkesta: Lan-egoerari buruzko galderak idazteko printzipioak

1. Lan-egoerari buruzko galderak izango dira, orokorrean, banan-banako galdera-sortan agertu beharreko lehenengoak, baina Lanaren Nazioarteko Erakundearen definizioaren arabera (lanean, langabezian edo inaktiboa). Horien ostean, etxeetako kideen ezaugarri demografikoei buruzko galderak egingo dira. Aurretik ez da galdetu behar, bereziki, jarduera nagusiari edo ohiko jarduerari buruzko ezer ere (ikaslea den, etxeandrea, pentsionista e.a.), eta ezta kolokazioko bulego publiko batean langabeziako laguntzak jasotzeko izena eman eta horren estatutu administratiboari buruzko ezer ere, horrek guztiak LNERen definizioaren arabera lan-egoerari buruzko erantzunak alde aurretik epaitzeko arriskua baldin badakar.

Hurrengo txandetan elkarri lotuta dauden elkarrizketak egiten direnetan, lana duen edo inaktiboa den pertsona baten lan-egoera ustez iraunkorra edo egonkorra den azkar kontrolatu ahal izango da aurreko txandan bere egoera zein zen ikusita.

2. Enpleguari buruz gutxienez bi galdera egin behar dira: bata lan egiteari buruzkoa da eta bestea enplegu bat izateari buruzkoa, baita aldi batez lanean ez egon arren ere (oporretan dauden pertsonak). Lan egiteari buruzko galdera enplegu bat izateari buruzkoa baino lehenago egingo da, eta horrek bien arteko kontrastea sortzeko aukera eskainiko du; ondorioz, kanpoan aldi batez dauden pertsonak zeintzuk diren guztiz identifikatzeko aukera eskainiko du.

Lanetik kanporatutakoak (enplegu-emailearen ekimenez hartutako lan-utzialdia) identifikatzea eta horiek pertsona aktiboaren kategorian sailkatzea (edo langabezian) enpleguarekin duten lotura formalak dituen bi baldintzen arabera da: lanera itzultzeko segurtasuna izatea eta lan-kontratua etenda egondako denbora tartea laburra izatea (hiru hilabete). Bi baldintza horietako zein den zehazteko, galdera bat egingo zaie, aldi batez lan gabe zergatik egon diren edo azken lau asteetan zehar lanik zergatik ez duten bilatu galdetu ostean, edo bestela, galdera horiei erantzun jakin batzuk proposatuko zaizkie.

3. Enpleguari eta lana bilatzeari buruzko galderak orientatzeko irizpide bat dute, eta horren bidez, zenbait ordu baino gutxiagoko jardueraren bat edo baita ordubeteko jardueraren bat egiten duten pertsonak identifikatzeko aukera ere egongo da.
4. Enpleguari buruzko galderak orientatzeko irizpide bat dute, eta horren bidez, soldatarik jasotzen ez duten familiako langileak identifikatzeko aukera egongo da. Horiek definitzeko orduan, lan egiteari buruzko beste galdera bat ere egin ahal izango da.
5. Enpleguari buruzko galderen bidez, garbi ikusten da soldataren truke edo irabazteko asmoarekin egindako lana bakarrik hartuko dela jarduera ekonomikotzat Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera.
6. Erreferentziako lanaldia zein den zehatz-mehatz zehaztu behar da. Enpleguari buruzko galdera orokorrean azkenengo asteari buruzkoa izaten da, "asteleheneetik ostiralera" doan tarteari buruzkoa, eta justu zein egun diren zehazten du. Beharrezkoa da erreferentziako aldiak ondo zehaztea lana bilatzeari eta baliagarritasunari buruz ari garenean. Lana bilatzeari eta horretarako erabilitako metodoei buruzko bi galderak azkenengo lau asteen gainekoak dira, erreferentziako astea barruan dela; baliagarritasunari buruzko galdera, berriz, erreferentziako astearen ondorengo bi astei buruzkoa da.
7. Enplegua bilatzeari buruzko galdera enpleguari buruzkoak egin zaizkien guztiei ere egin behar zaie, azken horien erantzunen arabera langabeak baldin badira. Galdera horrek ez du aurretik galbahe-galderarik. Hurrengo txandetan elkarri lotuta dauden elkarrizketak egiten direnean, lana duen edo inaktiboa den pertsona baten lan-egoera ustez iraunkorra edo egonkorra den, azkar kontrolatu ahal izango da aurreko txandan bere egoera zein zen ikusita.
8. Enplegua bilatzeari buruzko galderaren helburua dena delako pertsona horrek lana bilatzeko edo bere kontura lanean hasteko zer nolako ahalegina egin duen neurtzea da, baita ahalegin irregularra izanda ere. Galdera egiteko moduagatik, enplegua bilatzeko egin beharrekoak erreferentziako denbora-tartean baino egin ez badira, ez da pentsatuko enplegu bila aritu denik.
9. Enplegua bilatzeko erabilitako metodoei buruzko galderak bilatze metodo aktibo eta pasiboak hartzen ditu kontuan. Ondorengo metodoak izango dira aktiboak:

- lana bilatzeko asmoz, enplegu-bulego publiko batekin harremanetan izatea.
- lana bilatzeko asmoz, agentzia pribatu batekin harremanetan izatea.
- enplegu-emailei lan egiteko gertu zaudela adieraztea.
- norberak dituen harremanen bitartez, sindikatuen bitartez e.a. saiatzea,
- iragarkiak jartzea edo egunkarietako iragarkiei erantzutea,

- enplegu-eskaintzak aztertzea,
 - proba, lehiaketa edo elkarrizketetan parte hartzea, kontratatzeko prozeduraren batean,
 - lur, tegi edo materialak bilatzen saiatzea,
 - baimen, lizentzia edo finantza-baliabideak lortzeko egin beharrekoak egitea,
10. «Lana bilatzeko asmoz enplegu-bulego publikoarekin izan beharreko harremana» bi aldeetatik landu beharrekoa izango da. Harreman hori erregistroan izena emanda duen langabearen ekimenez edo bulegoaren ekimenez hasiko da, eta enplegua bilatzeko metodoei buruzko lehenengo galdera da (erantzunen kategorian). kontaktu hori ez da nahastu behar administrazio-izenematea berriztatzearekin, hain zuzen ere langabeziako sorospena lortzeko egiten denarekin (aldez aurretik lan egin ez bada edo lanik gabe egon ez bada), eta ezta kolokazioko bulegoak langabeak lana bilatzeko aukera handiagoa izan dezan emandako laguntzarekin ere. «Enplegu-bulego publikoarekin harremanetan izan» eta hori metodo aktibotzat hartzeko, ondorengoa baino ez da egin behar:
- Bulegoko fitxategian lehenbiziko aldiz norberaren izena ematea (lanean aldi batez aritu ostean edo lanik gabe egon ostean),
 - «izan daitezkeen lan-eskaintzei buruzko informazioa lortzea», edo
 - «bulegoak lan-eskaintzaren bat egitea»; enplegua eskatzen duenak eskaintza hori onartu edo ez onartzeko aukera izango du.
11. Enplegua bilatzeko metodoak zeintzuk izan diren adierazi egin behar da, gutxienez hiru metodo aktibo aipatu arte.
12. Identifikatu eta aparteko kategoria batean sailkatu behar dira gaur egun lan gabe egon baina lan bila ez dabiltzan pertsonak, dagoeneko aurkitu dutelako lana eta gehienez ere hiru hilabete baino lehen lanean hasiko direlako.